

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 29koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduradun lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahairako aholkularia izendatzeko dena.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2019ko ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 113. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduradun lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduradun lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, epaimahaiak erabaki dezake aholkulari espezialistak hartzea hautaketa-prozesuko proba bateko edo batzuetako lanetarako. Aholkulari espezialista horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta beren lan bakarra izango da epaimahaiari laguntzea espezialitate teknikoetan.

Ikusita epaimahaiak aurkeztutako eskaria, non eskatzen baita galdera espezifikoak eta kasu praktikoan lantzen lagunduko lukeen aholkulari baten izendatzeko,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Izendatzea Jose M^a Sanz de Galdeano Equiza jauna Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Lan hidraulikoen proiektuak egiteko arloko arduraduna hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimaharen aholkulari.

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 29a.

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta

Zuzendari nagusia

Uraren Euskal Agentzia